

1. Txostenaren eta eskutitzaren ebaluazioa

	Oso ondo (4)	Ondo (3)	Erdizka (2)	Eskas (1)	Puntuak
Antolaketa	Edukia atalka oso ondo banatu da. Atal guztietan —paragrafoetan oso ondo bereizita—, sarrera, gorputza eta ondorioak agertzen dira. Paragrafoak oso ondo lotuta daude elkarren artean. Txosteneko azal, aurkibide, bibliografia eta interneteko loturek oso ondo jasotzen dute agindutakoa. Eskutitzean gutun formalerako eskatzen diren formulak oso ondo erabiltzen dira.	Edukia atalka ondo banatu da. Atal gehienetan —paragrafoetan ondo bereizita—, sarrera, gorputza eta ondorioak agertzen dira. Paragrafoak ondo lotuta daude elkarren artean. Txosteneko azal, aurkibide, bibliografia eta interneteko loturek ondo jasotzen dute agindutakoa. Eskutitzean gutun formalerako eskatzen diren formulak ondo erabiltzen dira.	Edukia atalka nahiko ondo banatu da. Zenbait ataletan paragrafoak ez daude ondo bereizita, eta sarrera, gorputza eta ondorioak ez daude ondoegi antolatuta. Paragrafoen arteko lotura ez da beti aproposena. Txosteneko azal, aurkibide, bibliografia eta interneteko loturek gutxi gorabehera jasotzen dute agindutakoa. Eskutitzean gutun formalerako eskatzen diren formulak gutxi gorabehera erabiltzen dira.	Edukia ez da ondo antolatu atalka. Atal gehienetan paragrafoak ez daude ondo bereizita, eta sarrera, gorputza eta ondorioak gaizki antolatuta daude. Paragrafoen arteko lotura askotan ez da aproposa. Txosteneko azal, aurkibide, bibliografia eta interneteko loturek ez dute ondo jasotzen agindutakoa. Eskutitzean gutun formalerako eskatzen diren formulak gaizki erabiltzen dira.	
Informazioa	Eskatutako guztiaren erantzuna jasotzen du. Jasotako informazioa guztiz bat dator gaiarekin. Garrantzizkoa dena oso ondo bereizten du. Bigarren mailako informazioa ere jasotzen du.	Eskatutako ia guztiaren erantzuna jasotzen du. Jasotako informazioa bat dator gaiarekin. Garrantzizkoa dena ondo bereizten du. Bigarren mailako zenbait informazio ere jasotzen du.	Eskatutako zerbaiten erantzuna ez du jasotzen. Jasotakoa batzuetan ez dator bat gaiarekin. Garrantzizkoa dena gutxi gorabehera bereizten du. Bigarren mailako informazio oso gutxi jasotzen du.	Atal bati edo gehiagori ez zaio erantzunik eman. Jasotako informazioa askotan ez dator bat gaiarekin. Garrantzizkoa dena ez du ondo bereizten. Ez du jasotzen bigarren mailako informaziorik.	

Idazkera	Izen, adjektibo, aditz eta abarren erabilera aberatsa da. Ez dago akats gramatikalik, ortografikorik edota puntuaziokorik.	Izen, adjektibo, aditz eta abarren erabilera ugaria da. Akats gramatikal, ortografiko edota puntuazioko gutxi batzuk daude.	Izen, adjektibo, aditz eta abarren erabilera ez da oso ugaria. Hainbat akats gramatikal, ortografiko edota puntuazioko daude.	Izen, adjektibo, aditz eta abarren erabilera pobrea da. Akats gramatikal, ortografiko edota puntuazioko asko daude.	
Irudiak	Irudiak lana ulertzeko eta osatzeko oso ondo hautatuta daude. Irudi guztien kalitatea, neurria, kokapena eta izendapena oso onak dira.	Irudiak lana ulertzeko eta osatzeko ondo hautatuta daude. Irudi guztien kalitatea, neurria, kokapena eta izendapena onak dira.	Irudi gehienek lana ulertzeko eta osatzeko balio dute. Irudi gehienek kalitatea, neurria, kokapena eta izendapena nahiko dira.	Irudiek lana ulertzeko eta osatzeko ez dute balio. Irudien kalitatea, neurria, kokapena eta izendapena ez da ona sarritan.	
Informazio iturriak	Informazio iturri eta irudi guztiak ondo dokumentatuta daude.	Ia informazio iturri eta irudi guztiak dokumentatuta daude.	Informazio iturri eta irudi batzuk ez daude ondo dokumentatuta.	Informazio iturri eta irudi asko ez daude dokumentatuta.	
Orriaren formatua	Marjinak oso ondo ezarri eta mantendu dira orri guztietan. Orri guztiak oso ondo zenbatuta daude.	Marjinak ondo ezarri eta mantendu dira orri guztietan. Orri guztiak ondo zenbatuta daude.	Marjinak ondo ezarri eta mantendu dira orri gehienetan. Orri gehienak ondo zenbatuta daude.	Marjinak ez dira ondo ezarri edo mantendu sarritan. Orriak ez daude ondo zenbatuta.	

Estimazio eskala:

Puntuazioa	1 - 11	12 - 14	15 - 17	18 - 21	22 - 24
Kalifikazioa	Gutxi (0-4)	Nahikoa (5)	Ongi (6)	Oso ongi (7-8)	Bikain (9-10)

2. Talde laneko ebaluazioa

	Oso ondo (4)	Ondo (3)	Erdizka (2)	Eskas (1)	
Ekarpenak	Oso saiatua da. Beti eskaintzen ditu ideia aproposak eta kalitate handiko lana lan taldean.	Saiatua da. Sarri eskaintzen ditu ideia aproposak eta kalitate handiko lana lan taldean.	Saiatzen da. Batuetan eskaintzen ditu ideia aproposak. Baina, kalitatea bermatzeko, lankideek honen lana gainbegiratu behar izaten dute batuetan.	Sarri ez da saiatzen. Oso gutxitan eskaintzen ditu ideia proposak, eta kalitatea bermatzeko lankideek honen lana gainbegiratu behar izaten dute askotan.	
Jarrera	Beti dago lanerako prest eta beti du lanarekiko jarrera baikorra. Lanean zentratuta mantentzen da. Taldekideen konfiantza osoa du. Ez du inoiz besteen lana kritikatzen jende aurrean. Arazoen aurrean konponbideak bilatu eta proposatzen ditu.	Normalean lanerako prest dago eta ia beti lanarekiko jarrera baikorra du. Lanean zentratuta mantentzen da ia beti. Taldekideen konfiantza du. Gutxitan kritikatzten du besteen lana jende aurrean. Arazoen aurrean konponbideak bilatzen eta proposatzen saiatzen da.	Batuetan kostatzen zaio lanean hastea, nahiz eta normalean lanarekiko jarrera baikorra izan. Batuetan besteek gogorarazi behar diote lanean zentratu behar dela. Batuetan kritikatzten du besteen lana jende aurrean. Ez du konponbiderik proposatzen, baina besteek proposaturikoak onartzen ditu.	Askotan ez dago lanerako prest eta normalean lanarekiko jarrera ezkorra du. Oso gutxitan zentratzen da lanean, besteek egingo dutelakoan. Askotan kritikatzten du besteen lana jende aurrean. Ez da arazoak konpontzen saiatzen, beste batzuek egingo dutelakoan.	
Kideekiko harremana	Entzun, partekatu eta lagundu egiten du. Taldekideen arteko batura mantentzen saiatzen da talde lana eginez.	Askotan entzun, partekatu eta lagundu egiten du. Taldekideen arteko batura mantentzeko ez du arazorik sortzen.	Batuetan entzun, partekatu eta lagundu egiten du. Beste batuetan, aldiz, ez da lankide ona.	Gutxitan entzun, partekatu eta laguntzen du. Askotan ez da lankide ona.	

Denboraren erabilera	Denbora ondo erabiltzen du lanak garaiz eginak daudela ziurtatzeko. Taldeak ez du lan epea negoziatu edo atzeratu behar ikasle honengatik.	Denbora ondo erabiltzen du ia beti, baina atalen batean atzeratu da. Taldeak ez du lan epea negoziatu edo atzeratu behar ikasle honengatik.	Atzeratzeko joera du, baina lanak epearen mugarako eginda daude. Taldeak ez du lan epea negoziatu edo atzeratu behar ikasle honengatik.	Oso gutxitan ditu lanak garaiz eginak. Taldeak lan epea negoziatu edo atzeratu behar izan du ikasle honengatik.	
Internetaren erabilera	Proposaturiko loturak informazioa lortzeko arrakastaz erabili ditu. Lekuen artean erraztasunez nabigatu du laguntzarik gabe.	Informazioa lortzeko proposaturiko loturak erabiltzeko gaitasuna izan du. Lekuen artean nabigatu du laguntzarik gabe.	Informazioa lortzeko proposaturiko loturak batzuetan arrakastaz erabili ahal izan ditu. Lekuen artean nabigatzen saiatu da.	Laguntza behar izan du proposaturiko loturetara arrakastaz heltzeko. Baita lekuen artean nabigatzeko ere.	
Prestaketa	Behar duen materiala ekartzen du.	Behar duen materiala ia beti ekartzen du.	Batzuetan materialik gabe etortzen da.	Askotan etortzen da materialik gabe.	

Estimazio eskala:

Puntuazioa	1 - 11	12 - 14	15 - 17	18 - 21	22 - 24
Kalifikazioa	Gutxi (0-4)	Nahikoa (5)	Ongi (6)	Oso ongi (7-8)	Bikain (9-10)